

BALOREZKO PROPOSAMENA

TECHLOCK enpresa gara. Lehengo eta behin, geure buruak aurkeztuko ditugu. Irati Calvo, Paula García, Gabriel González, Garazi Baños eta Adrián Rodríguez gara. Gure proiektu **Touchlock** zertan datzan azalduko dugu.

Touchlock hatz marka digitala erabiltzen duen kandadua da. Produktu honen helburua bezeroaren erosotasuna eta segurtasuna bilatzea da. Ikasleentzat eta kirolarientzat bideratuta dago, hau da, klasean eta polikiroldegian kandadua erabiltzen dutenentzat batez ere. Izan ere, beste arlo batzuetan erabil daitezke, adibidez etxeko postontzietan edota lantegiko takiletan.

Hala ere, esan beharra dago hasiera batean gure helburua kutxatilatategietara bideratuta egongo dela, eta arrakasta baldin badugu, beste erabilera batzuk emango dizkiogula.

Gure produktuak banakako salmenta bidez eskainiko ditugu, baita erakundeen (Forum, Decathlon...) bidez. Banakako salmenta aurrera eramateko enpresaren web-orrialdetik eskainiko diegu bezeroei, eta ezagun izateko publizitatea erabiliko dugu, hasiera batean propaganda erabiliz. Diru-sarrera gehiago lortu bezain pronto, publizitate kartelak jartzen saiatuko gara.


Horrez gain, gure produktuak ospea baldin badu, hainbat produktu gehiago egitea pentsatu dugu, hala nola, begietako irisaren bitartez zabaltzen den kandadua, edota gure ahotsaren bitartez.

Laburbilduz, lehen esan dugun moduan, erosotasuna eta segurtasuna bezeroei eskaintzea nahi dugu lehen helburu bezala, modu horretan giltza galtzeko aukera ez izateko.

Gure produktuaren deskribapenarekin hasteko, balorezko proposamenarekin abiatu behar gara; horrela, landutako lanaren balioa eta bere onurak azalduko ditugu, bezeroei zer eskaintzen diegun jakinarazteko.

Teknologiarekin lotuta dagoen produktua da, eta horregatik modernizazioa dakar; horrela, arlo honetan hasieratik zeuden beharrianak asetzeko aukera dago. Gainera, originaltasuna da gure ezaugarriarik nagusienetakoa, lehen esan dugun moduan, teknologiaren modernizazioarekin jolasten baitugu.

Gure proposamenaren balorea kuantitatiboa zein kualitatiboa izan daiteke. Balorea kuantitatiboa bada, neurgarria izango da; balore kualitatiboa, berriz, bezeroak produktu edo zerbitzu jakin baten inguruan duen ikuspegiarekin dago lotuta. Horregatik, gure produktuak bi faktoreak izango ditu kontuan.



TechLock SM

ENPRESAN IZENA: Techlock

PRODUKTUAREN IZENA: Touchlock

BLOGGA: <http://polarexpresstl.blogspot.com.es/>